## 7 UDAL ADMINISTRAZIOA / ADMINISTRACION MUNICIPAL 7

### DONOSTIAKO UDALA

*Animaliak babestu eta edukitzeko Donostiako Udal Ordenantza.*

Gobernu Batzordeak 1993-04-20an eman zion hasierako onespena eta, aldaketa batzuk egin ondoren, 1993-12-21ean onartu zuen berriro.

Gizarte Ongizate eta Osasun Batzordeko Informazio Batzordeak 1994-05-26an onartu zuen.

Udalbatzarrak 1994-06-02an eman zion hasierako onespena.

1994-07-15eko 134. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, jendeari horren berri emateko.

Gobernu Batzordeak 1993-08-29an eman zion onespena.

#### I. IDAZPURUA XEDEA ETA EZARPEN EREMUA

*1. Artikulua.*

Udal ordenantza honek 1993ko apirilaren 20an Gobernu Batzordeak onartutako izen bereko ordenantza du oinarri, eta Eusko Legebiltzarrak onartutako urriaren 29ko 6/1993ko Legeak, Animaliak Babestearenak, 1993ko azaroaren 15ean 220. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian* argitaratuak, eragindako egokitzapenak jasotzen ditu.

Animalia mota guztiak etxean izateko, horien jabe izateko, erabiltzeko, ikusgai jartzeko, eta saltzeko arauak ezartzea da ordenantza honen xedea.

Bestalde, animaliak zaintzeko moduaz ere arduratzen da eta tratu, garbiketa, elikadura, babes, garraio eta identifikazioaren aldetik dauden gutxieneko betekizunak arautzen ditu.

Animaliak aldi baterako gordetzen dituzten zentroek eta animalientzako kontsulta, klinika eta ospitaleek bete beharreko arauak ezartzen ditu.

Azkenik, arau hausteak eta zehapenak sailkatzen ditu eta zehapenak gauzatzeko ihardunbidea ezartzen du.

*2. Artikulua.*

Ordenantza honen ezarpen eremua Donostiako udalerri osoa da.

*3. Artikulua.*

Honako gai hauek ordenantza honetaz kanpo gelditzen dira, horietarako arau bereziak daude eta:

a) Ehiza.

b) Arrantza.

c) Basabereak beren ingurugiroan zaindu eta babestea.

d) Zezenak eta tradiziozko zezen jaiak.

#### II. IDAZPURUA ARAU OROKORRAK

*4. Artikulua.*

1. Ordenantza honen ondorioetarako, bizi ahal izateko pertsona baten zaintze lanak beharrezko dituzten animaliak jotzen ditugu etxaberetzat.

### AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

*Ordenanza Municipal para la protección y tenencia de animales en Donostia-San Sebastián.*

Aprobada inicialmente por la Comisión de Gobierno en su Sesión de 20.04.93 y con sus modificaciones el 21.12.93.

Aprobada por la Comisión Informativa de la Comisión de Bienestar Social y Sanidad, el 26.05.94.

Aprobada inicialmente por el Ayuntamiento Pleno en su Sesión del 02.06.94

Sometida a información pública en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa núm. 134 de 15.07.94

Aprobada definitivamente en la Comisión de Gobierno en su Sesión del 29.08.94.

#### TITULO I OBJETIVO Y AMBITO DE APLICACION

*Artículo 1.*

La presente Ordenanza Municipal se basa en su homónima aprobada inicialmente por la Comisión de Gobierno del 20 de abril de 1993, y recoge las adaptaciones de aquella a la vigente Ley 6/1993 de 29 de octubre, de Protección de los Animales, aprobada por el Parlamento Vasco y publicada en el *Boletín Oficial del País Vasco* número 220 de 15 de noviembre de 1993.

Tiene como objetivo, regular la convivencia, posesión, utilización, exhibición y comercialización de todo tipo de animales.

Regula, asímismo, las atenciones mínimas que han de recibir los animales desde el punto de vista del trato, higiene y alimentación, protección, transporte e identificación.

Fija las normas que han de cumplir los establecimientos dedicados a mantenerlos temporalmente, y los requisitos y características de los consultorios, clínicas y hospitales, veterinarios.

Finalmente, tipifica las infracciones y las sanciones aplicables y establece el procedimiento ejecutivo sancionador.

*Artículo 2.*

El ámbito de la presente Ordenanza se refiere a todo el término municipal de Donostia-San Sebastián.

*Artículo 3.*

Quedan fuera de esta Ordenanza y se regirán por su normativa propia:

a) La Caza.

b) La Pesca.

c) La protección y conservación de la fauna silvestre en su medio natural.

d) Los toros y espectáculos taurinos tradicionales.

#### TITULO II NORMAS DE CARACTER GENERAL

*Artículo 4.*

1. Se considera animal domestico, a los efectos de la presente Ordenanza, aquellos que dependen de la mano de una persona para su subsistencia.

2. Basoan eta aske jaio ondoren, gizakiak ikusten eta horiekin egoten ohitutako animalia, azkenik bizirik irauteko gizakiaren beharra izatera iristen dena, jotzen dugu hezitako animaliatzat.

3. Basoan zein gatibu jaio ondoren, gatibu bizi diren animalia hezi gabeak jotzen ditugu basabere gatibutzat.

4. Eskuarki, etxabereak eta hezitako animaliak etxean izateko eskubidea aitortzen da, baldin eta bizilekua, instalazioen ezaugarriak eta animalien kopurua egokiak badira, bai garbitasun nahikoa dagoelako bai auzokoei zein beste edonori edo animaliari berari zein beste animalia batzuei arrisku edo deserosotasunik sortzen ez dietelako, beren izaerak berak eragindakoak alde batera utzita.

5. Ikuiluko, hazkuntzako edo abeltegiko animaliak etxean, terrazetan, azoteetan, ganbaretan, garajeetan, trastelekuetan, sotoetan edo patioetan izateko aurreko puntuan jasotakoa betetzeaz gain, Hirigintza Plangintzako arauak eta maila handiagoko beste batzuk bete beharko dira; bestalde, beharrezkoa da Udalaren IGOKA baimena.

*5. Artikulua.*

1. Basabereak zein kaltegarri edo basatiak diren animaliak ezin dira lokabe utzi kanpoaldeetan edo jendearentzat irekitako lokaletan, horretarako propio diren esparru, barruti nahiz zoologikoetan ez bada.

2. Alkateak, Udalaren zerbitzu teknikoen txostena irakurrita, animalia horiek etxean edo lokal pribatuetan izateko baimena eman ahal izango du; horretarako, kontuan izango ditu beren ezaugarriak, bizilekuan segurtasuna eta garbitasuna ziurtatuta egotea eta jendeari ezerosotasun objetiborik ez sortzea.

*6. Artikulua.*

1. Txakurrak ezin dira bizi balkoi, garaje, pabilioi, soto, azotea, lorategi edo beste inongo lokaletan, usain, hots, ulu edo zaunkengatik ezerosotasun objetiborik sortzen badiete auzokoei zein hortik ibiltzen den edozeini.

2. Etxabereak ezin dira bizi, beti edo ia beti abeltegi batean sartuak, herriko parke, lorategi zein hirikotzat jotako lursailetan.

*7. Artikulua.*

Udal zerbitzu teknikoek etxabereek sortutako ezerosotasunen berri emango diote Udalari, beren kasa zein norbaitek salaketa bat jarrita.

*8. Artikulua.*

1. Animalien jabeek zein animaliak gordetzen dituztenek ahalik eta garbien izan behar dituzte, bai eta behar dituzten, janari, edari eta zaintze lanak eman ere; horrezaz gain, albaiteroen laguntza eta gorputz ariketa nahikoa ere eskuratuko dizkiete, agintariek agindutako administrazio eta osasun neurriak hartuko eta beren espeziearentzat egokia den bizilekua emango.

2. Animalia gordetzen duena edo bere jabeak animaliak gaixotasun kutsagarriren bat duelako susmoa badu, bere albaiteroari esan beharko dio.

3. Gizakia kutsa dezakeen gaixotasunen bat duen animalia, Elkargo Ofizialeko albaitero batek aztertu eta hil egin behar dela esaten badu, zilegi den modu batez hilko da; jabearen kontura;

2. Se considera animal domesticado a aquel que, habiendo nacido silvestre y libre, es acostumbrado a la vista y compañía de la persona, dependiendo, definitivamente de ésta para su subsistencia.

3. Son animales salvajes en cautividad aquellos que habiendo nacido silvestres o en cautividad, son sometidos a condiciones de cautiverio, pero no de aprendizaje para su domesticación.

4. Con carácter general, se reconoce el derecho a la tenencia de animales domésticos y domesticados, en los domicilios particulares, siempre que las circunstancias de alojamiento, la adecuación de las instalaciones y el número de animales lo permitan, tanto en el aspecto higiénico sanitario, como por la no existencia de ninguna situación de peligro o de incomodidad, objetivos, para los vecinos o para otras personas en general, o para el propio animal u otros animales, que no sean las derivadas de su misma naturaleza.

5. La tenencia de animales estabulados, de cría y de coral, en domicilios particulares, terrazas, azoteas, desvanes, garages, trasteros, bodegas o patios, se ajustará, además de a lo dispuesto en el apartado anterior, a las normas de Planteamiento Urbanístico y a otras de rango superior, precisando de la oportuna Licencia Municipal de Actividades MINP.

*Artículo 5.*

1. Se prohibe dejar sueltos, en espacios exteriores o locales abiertos al público, animales salvajes o reputados de dañinos o feroces, fuera de las condiciones y de los recintos, áreas o parques zoológicos destinados a tales efectos.

2. El Alcalde, previo Informe de los oportunos servicios técnicos municipales, podrá autorizar, expresamente, la tenencia de aquellos animales en viviendas o locales particulares, atendiendo a sus características específicas, al cumplimiento de las condiciones de seguridad e higiene de su alojamiento, así como a la ausencia de molestias objetivas, para las personas.

*Artículo 6.*

1. Se prohibe, asímismo, la tenencia habitual o estabulación de perros en balcones, garages, pabellones, sótanos, azoteas, jardines o cualquier otro local, cuando estos ocasionen molestias, objetivas, por sus olores, ruidos, aullidos o ladridos a los vecinos o transeuntes.

2. Tambien se prohibe la presencia habitual, en régimen de estabulación o semi-estabulación, de animales domésticos, en parques y jardines públicos y terrenos calificados como urbanos.

*Artículo 7.*

Los servicios técnicos municipales, informarán sobre las molestias que pudieran producirse por la acción de los animales domésticos, previa denuncia o de oficio.

*Artículo 8.*

1. Los propietarios o tenedores de animales asumen la responsabilidad de mantenerlos en las mejores condiciones higienico sanitarias, proporcionarles la alimentación, bebida y cuidados adecuados, prestarles asistencia veterinaria, facilitarles el suficiente ejercicio físico, a aplicar las medidas administrativas y sanitarias preventivas que la Autoridad disponga, así como facilitarles un alojamiento de acuerdo con las exigencias propias de su especie.

2. Cuando un propietario o tenedor considerara que un animal pudiera padecer una enfermedad contagiosa, lo pondrá en conocimiento de su Veterinario.

3. Todos los animales afectados de enfermedad susceptible de contagio para las personas, diagnosticada por un Veterinario colegiado, y que a su juicio, tengan que ser sacrificados, lo serán

sendaezinezko gaixotasun iraunkorrik duen animalia ere hil beharko da, jabeak ez badu behar bezala zaintzen.

4. Garraiatzen ari direla, animaliek leku nahikoa, garbia, desintsektatu eta desinfektatua izan behar dute, hotz, euri eta bestelako eguraldi gertakarietatik ongi babestua, segurtasun neurri egokiak eta beharrezko errotuluak dituena; bidaian janari eta edari aproposa emango zaie, eta ez dira denbora luzeegian jan edo edan gabe egongo.

*9. Artikulua.*

Ezin da honelakorik egin:

1. Animalia erasotuz zein gai toxikoak emanez hiltzea; gai toxikoak jendearentzako bide zein esparruetan uztea, animaliei kalteak eragitea zein horiekin gogorkeriaz jokatzea edo tratu txarra ematea, norberarenak zein beste batenak izateak, etxekoak, hezituak zein basatiak izateak eta gizakiarekin bizi zein gatibo izateak axola ez diola.

2. Antzezlanetan, dantza lekuetan, pelikuletan zein propaganda lanetan animaliak erabiltzea, horrek animaliari kalte, sufrimendu edo umiliazioa ekartzen badio.

3. Txakur eta oilarren arteko borrokak.

4. Animalia etxetiarrak bazterrera uztea; animalia luzeago izan nahi ez duen jabeak beste jabe bat bilatu beharko dio edo, besterik ezean, animaliak babesteko elkarteren bati eman; gainera, horren berri emango dio Udal Sanitateari nahiz Udal Zakurtegiari.

5. Gorputz atalaren bat kentzea, osasun zein funtzionamendu beharrengatik edo arrazaren ezaugarriak mantentzeagatik egiten direnak izan ezik, beti ere albaiteroaren kontrolpean.

6. Animaliak sari nahiz donari gisa edo beste zerbaiten truke ematea, ez badira diru truke egindako animalien salerosketak.

7. Hamalau urtetik beherakoei zein ezinduei animaliak saldu, utzi zein ematea, beraiekiko guraso boterea edo zaintza boterea dutenen baimena izan gabe.

8. Edozein motatako animalien salmenta ibiltaria, beharrezko baimenak dituzten merkatu eta erakustazoketan egiten dena izan ezik.

9. Administrazioaren kontrolpean ez dauden laborategi zein klinikei animaliak saltzea.

10. Alkohola, droga edo botikarik ematea zein gorputz zein buru arazorik eragin diezaiekeen edozein gauza egitea, batez ere, lehiaketa batean emaitza hobeak izan ditzaten egiten bada.

11. Elikagaiak egin, saldu, gorde, garraiatu edo maneatzen diren lokal edo ibilgailuetan, jendearentzako ikuskizunetarako erabiltzen direnetan, jendearentzako igerilekuetan eta osasun etxeetan animaliak sartu zein egotea.

12. Etxabereak hondartzetan ibili edo bertan egoteko sarbideetan ematen diren arauak bete beharko dira.

13. Animalia handiak edo arazoak sor ditzaketenak herri garraiobideetan, ohizko zerbitzuetan edo zerbitzu berezietan bidaiarientzako lekuetan, eramatea.

*10. Artikulua.*

Jabeek behin eta berriro edo oso larriki hausten badituzte aurreko artikuluetan ezarritako arauak, edo garbitasun edo osasun beharrengatik komeni bada, Alkateak, Udal Sanitateak

por un sistema eutanásico, autorizado, con cargo al propietario; tambien deberán sacrificarse los que padezcan afecciones crónicas incurables y no estuvieran debidamente cuidados y atendidos por sus propietarios.

4. Durante el transporte, los animales deberán disponer de espacio suficiente, en buenas condiciones higiénico sanitarias, desinsectado y desinfectado, protegido de las inclemencias climatológicas, con las medidas de seguridad adecuadas y rotulado, recibiendo, durante el viaje, la alimentación y bebida apropiada a intervalos convenientes.

*Artículo 9.*

Queda prohibido:

1. Causar la muerte mediante actos de agresión o suministro de sustancias tóxicas; el depósito de sustancias tóxicas en vías y espacios públicos, causar daños o cometer actos de crueldad, malos tratos a los animales, propios o ajenos, domésticos, domesticados o salvajes, en régimen de convivencia o cautividad.

2. La utilización de animales en teatros, salas de fiestas, filmaciones o actividades de propaganda que suponga daño, sufrimiento o degradación del animal.

3. Las peleas entre perros y gallos.

4. El abandono de los animales de compañía; los propietarios de animales que no deseen continuar poseyéndolos, deberán buscarles un nuevo propietario y, en última instancia, entregarlo en una asociación de protección de animales, notificándolo a Sanidad Municipal o en el Albergue Municipal Canino.

5. Practicar mutilaciones, excepto las controladas por veterinario, en caso de necesidad terapeútica, por exigencia funcional o para mantener las características de la raza.

6. Hacer donación como premio, recompensa o regalo de compensación por otras adquisiciones de naturaleza distinta de la transacción onerosa de animales.

7. La venta, cesión o donación de animales a menores de 14 años y a incapacitados sin la autorización de los que tienen su patria potestad o la custodia.

8. La venta ambulante de todo tipo de animales, fuera de los mercados y ferias debidamente autorizadas.

9. La venta de animales a laboratorios o clínicas sin control de la Administración.

10. Suministrarles alcohol, drogas o fármacos o practicarles cualquier manipulación artificial que pueda producirles daños físicos o psíquicos, y en particular, cuando sea para alterar su rendimiento en una competición.

11. La entrada y/o permanencia de todo tipo de animales en locales o vehículos destinados a la fabricación, venta, almacenamiento, transporte y manipulación de alimentos, en aquellos en los que tengan lugar espectáculos públicos, en las piscinas públicas y establecimientos sanitarios.

12. En cuanto a las playas, la circulación o permanencia de los animales domésticos se atendrá a lo expresamente estipulado en las zonas de acceso a las mismas.

13. El traslado de animales, grandes y/o problemáticos, en los transportes públicos, lineas regulares o servicios discreccionales y en el lugar destinado a los viajeros.

*Artículo 10.*

En caso de grave o persistente incumplimiento por parte de los propietarios de las obligaciones establecidas en los artículos anteriores, o por motivos higiénico-sanitarios, el Alcalde, previo

egindako txosten batean oinarriturik, animaliak establezimendu egokiren batera bidaltzea erabaki ahal izango du, jabeen kontura, bai eta beste neurri osagarriren bat hartu ere, arau hausteari dagozkion zehapenak baztertu gabe.

*11. Artikulua.*

Udal Sanitateak hiriko animaliak kontrolatuko ditu, batez ere, txakurrak, katuak, hegaztiak eta marraskariak.

*12 Artikulua. Animalia hilak jasotzea.*

Donostiako Udalak Donostiako udalerriko herri bideetan animalien gorpuak jasotzeko eta tratatzeko zerbitzu bat jarriko du edo enpresa batekin kontratatuko.

Gorpua etxebizitza pribatu, establezimendu edo albaitaritza klinika batetik hartu behar bada, zerbitzu hori ematen duen enpresa pribaturik egon ezean, Udalak jasoko du animalia eta jabeak ordainduko ditu zerbitzuagatiko tasak.

Jabeek berek eraman ditzakete gorpuak San Markos Zabortegira.

## III. IDAZPURUA
## TXAKUR ETA KATU ETXETIARRAK

*13. Artikulua.*

9.11 eta 9.13 artikuluko iharduerekin zerikusirik ez duten jendearentzako establezimenduen jabe zein gerenteek eta ostalaritza establezimenduenek baimena eman dezakete txakur eta katu osasuntsu bertan sartu eta gelditzeko, beren tamaina, otzantasuna eta manukortasuna kontuan izanda.

Sartzeko baimena izanda ere, animaliak soka edo lepoko batez lotuko dira.

*14. Artikulua. Itsu txakurrak.*

1. Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, itsu bati laguntzen dion txakurra jendearentzako toki, ostatu, denda, lokal eta garraiobideetan sartu ahal izango da.

2. Agintaritzaren mandatari batek edo lokalaren arduradunak eskatzen badio, itsuak txakurra gida-txakurra dela eta osasun baldintzak betetzen dituela egiaztatu beharko du.

3. Itsu txakurra gaixo, erasokor, zikin edo arriskutsua delako susmoa badago, ezin izango da lehenengo zenbakian adierazitako lekuetan sartu.

*15. Artikulua.*

Igogailuan jende gehiago dagoenean musukorik ez daraman itsu txakurra ez sartzeko eskatu ahal izango diote auzokoek txakur jabeari.

*16. Artikulua.*

1. Txakur jabeak, edo txakurra zaintzen duenak, eta etxetik ateratzen den katuaren jabe zein zaintzaileak animaliaren datuak agertzen dituen xafla bat jarri beharko dio, bere kontura, animaliak hiru hilabete dituenetik.

2. Horretarako xafla elektroniko bat jarriko zaie, Eusko Jaurlaritzak xedatutakoarekin bat.

Informe de Sanidad Municipal, podrá disponer el traslado de los animales a un establecimiento adecuado con cargo a los propietarios y adoptar cualquiera otra medida adicional necesaria, sin perjuicio de las sanciones que pudieran derivarse.

*Artículo 11.*

Por Sanidad Municipal se controlará la fauna urbana, con especial incidencia en perros, gatos, aves y roedores.

*Artículo 12. Sobre la recogida de animales muertos.*

El Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián, promoverá el oportuno Servicio, propio o contratado, para la recogida de cadáveres de animales en la vía pública del término municipal de Donostia-San Sebastián y su posterior tratamiento.

En el supuesto de que el traslado del cádaver sea desde una vivienda particular, establecimiento o clínica veterinaria, en el supuesto de que no existan empresas privadas que realicen el servicio, subsidiariamente, se procederá a la recogida, a domicilio, abonando, el propietario del animal, las tasas establecidas.

Asímismo, los propietarios podrán trasladar, personalmente, los cadáveres hasta el Vertedero Mancomunado de San Marcos.

## TITULO III
## DE LOS PERROS Y GATOS DE COMPAÑIA

*Artículo 13.*

Los titulares o gerentes de establecimientos abiertos al público, cuya actividad no se relacione con las descritas en el Artículo 9.º 11 y 13 y los del Sector de la Hostelería, podrán permitir la entrada y permanencia de perros y gatos sanos en aquellos, atendiendo a criterios de su tamaño, docilidad y disciplina.

Aún contando con su autorización, los animales entrarán y permanecerán sujetos por correa o collar.

*Artículo 14. Los perros lazarillos.*

1. No obstante lo dispuesto en los artículos anteriores, los perros-guías, acompañados de persona deficiente visual, tendrán acceso a los lugares, alojamientos, establecimientos, locales y transportes públicos.

2. A solicitud de un Agente de la Autoridad o del encargado del local, el deficiente visual deberá acreditar la condición de perro-guía del animal, así como el cumplimiento de los requisitos sanitarios correspondientes.

3. Cuando el perro-guía presente signos de enfermedad, agresividad, falta de aseo o, en general, riesgo para las personas o cosas, no podrá acceder a los lugares señalados en el apartado primero.

*Artículo 15.*

Los vecinos podrán solicitar a los propietarios de perros no lazarillos que se abstengan de hacerlos subir al ascensor en compañía de otras personas, si no llevan bozal.

*Artículo 16.*

1. Los propietarios o poseedores de perros y sólo los de aquellos gatos que salgan del domicilio habitual, están obligados a identificarlos, a su costa, a partir de los tres meses de edad.

2. La identificación se hará mediante un implante electrónico, según lo dispuesto por el Gobierno Vasco.

PAPEL BIRZIKLATUA PAPEL RECICLADO

3. Udal Sanitateak txakur errolda elektroniko bat izango du, Gipuzkoako Foru Aldundiko Abeltzaintza Zerbitzuko Animaliak Identifikatzeko Erregistroari lotua.

4. Halaber, Udal Sanitatea datu basearen mantenimenduaz arduratuko da, lan hori urtean behin egingo duela, eta datuak ez zabaltzea bere erantzukizuna izango da.

5. Animalia hiltzen denean, bere jabe nahiz zaintzaileak albaiteroari esan beharko dio eta honek Udal Sanitateko Animalia Etxetiarren Errolda jarriko du jakinaren gainean, animalia hil eta hamar egun iragan baino lehen.

6. Animalia, lapurtuta edo bestela, desagertzen bada, albaiteroari edo zuzenean Udal Sanitateko Animalia Etxetiarren Erroldari jakinarazi beharko zaio, animalia desagertu eta hamar egun iragan baino lehen; animaliaren osasun liburuxka eta, salatuz gero, salaketaren kopia aurkeztu beharko dira.

7. Txakur jabeek edo beren zaintzaileek, etxez aldatzen badira edo animalia besteri ematen badiote, horren berri eman beharko diote Udal Sanitateko Txakur Erroldari, hamar egun iragan baino lehen, beharrezko aldaketak egin ahal izateko.

8. Udal Zerbitzu batek xaflarik ez daramaten txakurrak hartuko ditu.

*17. Artikulua. Txakur eta katu ausikariak kontrolatzea.*

1. Hozka egiteagatik egiaztatuko zauriak egin dituzten txakur zein katuak aztertuko ditu albaitero ikuskatzaileak, hamalau egunez, zaurituei zer osasunbide eman behar zaien jakiteko.

2. Animalien izurrite arazorik ez badago, Udal Sanitateak baimena ematen badu eta jabeak erantzukizuna bere gain hartzen duela propio agertzen badu, Elkargoko albaitero batek aztertu ahal izangu du animalia. Gutxienez hiru aldiz ikusi beharko du animalia, azkena hozka egin zuenetik hamalau egunera, eta Udal Sanitateko ikuskatzaileari emaitzen berri eman behar dio, albaitaritza egiaztagiri ofizial baten bidez, honek, beharrezkoa balitz araketaldiaren azken egunean animalia ikusi ondoren, alta eman diezaion.

*18. Artikulua. Bazterrera utzitako zein galdutako txakur eta katuak kontrolatzea.*

1. Jaberik ez duen eta animalien erroldan agertzen ez den animalia hartuko da bazterrera utzitako animaliatzat.

2. Ez da bazterrera utzitakotzat joko jabearen ondoan doan animalia, nahiz eta soka edo kate batez loturik ez ibili, edo galduta dagoena, beti ere identifikazio xafla badarama.

3. Txakur eta gainontzeko animalia abandonatuak eta, abandonatuta ez badaude ere, herrian zehar edo herriarteko bideetan bakarrik ibiltzen badira, hartuko ditüzte Udal Zerbitzuek eta Amorruaren Aurkako Udal Txakurtegira eramango.

4. Txakurtegi horretan animalia aztertuko dute hogeita hamar lanegunez behintzat. Jabeak, animalia eraman ahal izateko, jabea dela egiaztatu beharko du, eta zehapena eta gastuak ordaindu.

5. Animaliaren osasunagatik edo sor dezakeen arriskuagatik albaitero ikuskatzaileak komenigarri baderitzo, hogeita lau orduz baino ez da egongo.

3. Sanidad Municipal dispondrá de un Censo Canino electrónico conectado con el correspondiente al Registro Territorial de Gipuzkoa de Identificación Animal, en el Servicio de Ganadería de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

4. Asímismo, Sanidad Municipal se encargará del mantenimiento de la base de datos, con periodicidad anual y se responsabilizará de la confidencialidad de los datos.

5. Las bajas por muerte de los animales, serán comunicadas por sus propietarios o poseedores a su Veterinario quien lo notificará a su veterinario o al Censo de Animales de Compañía de Sanidad Municipal, en el término de 10 días a contar desde el día que se produjese.

6. En el supuesto de robo o desaparición, se comunicará, asímismo al Veterinario o directamente al Censo Municipal de Animales de Compañía de Sanidad Municipal, en el término de 10 días a contar desde el día que se produjese, acompañando a tal efecto la Cartilla Sanitaria y copia de la Denuncia, si la hubiere.

7. Los propietarios o poseedores de perros que cambien de domicilio o que transfieran la posesión del animal deberán comunicar estas circunstancias, en el plazo de 10 días, a su Veterinario o directamente al Censo Canino de Sanidad Municipal, para las oportunas modificaciones.

8. Los animales no identificados, serán retirados por el Servicio Municipal correspondiente.

*Artículo 17. Sobre el control de perros y gatos mordedores.*

1. Los perros o gatos que hayan producido lesiones comprobadas, por mordeduras, serán sometidos a observación veterinaria en el Albergue Antirrábico Municipal, durante 14 días por el Inspector Veterinario adscrito a Sanidad Municipal, con el fin de posibilitar la determinación médica del tratamiento ulterior de las personas afectadas.

2. Cuando las circunstancias epizoóticas lo permitan y siempre con la aprobación de Sanidad Municipal y bajo la responsabilidad del propietario, expresamente aceptada, podrá realizarse la observación por un Veterinario Colegiado que estará obligado a realizar, por lo menos, tres visitas, la última el día catorceavo desde la mordedura, dando cuenta al Inspector de Sanidad Municipal, mediante Certificado Oficial Veterinario, del resultado de la misma para que éste proceda a dar de alta a dicho animal, previo reconocimiento en el último día de observación, si procediera.

*Artículo 18. Sobre el control de perros y gatos abandonados o extraviados.*

1. Se considera animal abandonado aquel que no tenga dueño conocido ni esté censado.

2. No tendrán condición de abandonados los animales identificados que caminen junto a sus amos, aunque circunstancialmente no sean conducidos sujetos por correa o cadena o que hayan sido extraviados por sus dueños.

3. Los perros u otros animales abandonados y los que sin estarlo, circulen por la población o vías interurbanas sin su dueño o acompañante, serán recogidos por los servicios municipales y trasladados al Albergue Antirrabico Municipal.

4. En el Albergue Antirrábico Municipal, los animales serán mantenidos en observación durante un periodo mínimo de treinta días hábiles, a disposición de su propietario quien, para poder retirarlo, además de acreditar tal condición, deberá abonar la sanción y los gastos que correspondan.

5. Cuando las circunstancias sanitarias o de peligrosidad del animal, lo aconsejen, a juicio del Inspector Veterinario de Sanidad Municipal, este plazo se reducirá a veinticuatro horas.

6. Epea iraganda, jabeak animalia eraman ez badu edo gastuak ordaindu nahi ez baditu, edozein eskatzaileri emango zaio, salduko ez duela eta bere osasun eta administrazio egoera normalduko duela hitz ematen badu.

7. Animaliak identifikazio xafla badarama, Udal Txakurtegikoek txakurra hartu dutela jakinaraziko diote jabeari.

8. Besterik ezean, animalia hil egingo da albaitero baten kontrolpean, edo bestela animaliak babesteko elkarteren bati zein zientzi erakunderen bati emango zaio, Udal Sanitateak baimena eta txostena eman ondoren. Garraio gastuak hartzaileak ordaindu beharko ditu.

*19. Artikulua. Amorruaren Aurkako Udal Txakurtegia.*

Kalean hartutako animaliak gordetzeko amorruaren aurkako txakurtegi bat du Udalak. Bertan egoten dira, jabeek eskatzen ez dituzten bitartean edo araketaldia bukatu arte. Dena den, beharrezkoa izanez gero, Udalak beste erakunde batzuen zerbitzuak erabiltzeko hitzarmenak sinatu ahal izango ditu, baldin eta legezko erakundeak badira eta higiene eta osasun baldintzak betetzeko gaitasuna badute.

*20. Artikulua.*

1. Kalean deslai ibiltzen diren txakur eta katuak hartu eta garraiatzeko bitartekoek osasungarri eta garbiak izan beharko dute. Animaliez arduratzen diren langileek prestakuntza nahikoa izango dute eta animaliek ongi tratatu, errespetatu eta babestuak izateko dituzten eskubideak ezagutuko.

2. Lakiolariak, ordenantza honetan azaltzen den lana betetzen ari direnean, agintaritzaren mandatariak dira, ondorio guztietarako.

3. Udalak, hitzarmen baten bidez, enpresa espezializatuen esku zein animaliak babesteko legezko elkarteen esku utz dezake bazterrera utzitako animaliak jasotzeko zerbitzua, baldin eta behar bezain handia, osasuntsua eta garbia den txakurtegi bat baldin badute.

*21. Artikulua.*

1. Herritar batek animalia bat abandonatuta dagoelako susmoa edo tratu txarrak jasaten dituelakoa badu, Udaltzaingoa edo Udal Sanitatea jarriko du jakinaren gainean.

2. Abandonatutako animaliei ezin zaie janaririk eman.

*22. Artikulua.*

1. Herri bideetan eta jendearentzako gainontzeko ibiltokietan, txakurrak soka eta lepoko batez joango dira; beharrezkoa denean, udal agintariek musukoa eramateko aginduko dute.

2. Inoiz inori hozka egin dioten txakurrek eta, beren izaera eta ezaugarriengatik, jabearen ustetan arriskutsuak direnek musukoa eraman beharko dute.

*23. Artikulua.*

1. Txakurrek ezin dute kaka egin ez haurrentzako jolas parkeetan, ez lorategietan, ez herri bideetan eta ez, orokorrago esanda, hiriaren apaingarri zein oinezkoen ibilbide diren tokietan.

2. Hiria garbi mantentzeko, txakurrak daramatzaten lagunek ahaleginak egin beharko dituzte hauek herri bideetan, parkeetan eta lorategietan kaka egin ez dezaten; horretarako

6. Pasado este plazo sin que hayan sido retirados por sus dueños o éstos se nieguen a abonar los derechos pertinentes, quedarán a disposición de cualquiera que los solicite sin ánimo comercial y se comprometa a regular su situación sanitaria y administrativa.

7. Si el animal está identificado, desde el Albergue Municipal Canino se realizarán las oportunas gestiones para notificar al dueño del animal su captura.

8. En última instancia, se procederá a su sacrificio eutanásico, bajo el control de un veterinario, o serán donados a Sociedades Protectoras de Animales o centros o instituciones de carácter científico que lo solicitasen, con la autorización e informe de Sanidad Municipal, corriendo a su cargo los gastos de transporte.

*Artículo 19. Sobre el Albergue Antirrábico Municipal.*

El Municipio dispone de un Albergue Antirrábico para el alojamiento de los animales recogidos, mientras no sean reclamados por sus propietarios o mantenidos en el periodo de observación; no obstante, podrá concertar los servicios de otras instituciones, legalmente constituidas y con capacidad suficiente para esta finalidad en las debidas condiciones higiénico-sanitarias, si fuese necesario.

*Artículo 20.*

1. Los medios usados en la captura y transporte de perros y gatos vagabundos, tendrán las condiciones higiénico sanitarias adecuadas y serán atendidos por personal debidamente capacitado y formado sobre el derecho de los animales a ser bien tratados, respetados y protegidos.

2. Los laceros en el ejercicio de su actividad, establecida en la presente Ordenanza, tendrán, a todos efectos, el reconocimiento de Agentes de la Autoridad.

3. El Ayuntamiento podrá delegar, mediante Convenio, la recogida de animales abandonados a sociedades protectoras de animales legalmente constituidas con su correspondiente albergue, con capacidad suficiente para esta finalidad en las debidas condiciones higiénico sanitarias, o a empresas especializadas.

*Artículo 21.*

1. Cuando un ciudadano sospeche de la presencia de un animal abandonado o maltratado, lo comunicará a la Guardia Municipal o a Sanidad Municipal.

2. Queda prohibido alimentar a los animales abandonados.

*Artículo 22.*

1. En las vías públicas u otros lugares de tránsito de personas, los perros irán conducidos mediante correas y collar; el uso del bozal será ordenado por la Autoridad Municipal cuando las circunstancias así lo aconsejen y mientras duren éstas.

2. Tendrán que circular con bozal los perros con antecedentes de mordedores y aquellos otros cuya peligrosidad, a juicio de su propietario, sea razonablemente previsible, dada su naturaleza y características.

*Artículo 23.*

1. Queda prohibido que los perros depositen sus deyecciones en los parques infantiles, jardines, vías públicas y, en general, en cualquier lugar destinado al ornato y/o tránsito de peatones.

